
Sortu Alderdi Politikoaren estatutuak

Lehen kapitulua.

Izena, eremua, oinarri ideologikoak, helbidea

1. Artikulua. Izena
2. Artikulua. Eremua eta helburuak
3. Artikulua. Oinarri ideologikoak
4. Artikulua. Helbidea eta web orria

Bigarren kapitulua.

Militanteak (sortzaileak). Eskubideak eta betebeharrak

5. Artikulua. Afiliazioa
6. Artikulua. Afiliazio-prozedura
7. Artikulua. Kuota
8. Artikulua. Sortzaileen eskubideak
9. Artikulua. Sortzaileen betebeharrak
10. Artikulua. Sortzailearen baja
11. Artikulua. Diziplina-araubidea

Hirugarren kapitulua.

Ordezkaritza-, gobernu- eta administrazio-organoak

12. Artikulua. Printzipio orokorrak eta funtzionamenduari buruzkoak
13. Artikulua. SORTUren gobernu-organoak
14. Artikulua. SORTUren organo guztietarako printzipioak eta funtzionamendu-arau orokorrak
15. Artikulua. Kongresu Nazionala
16. Artikulua. Batzar Nazionala
17. Artikulua. Kontseilu Nazionala
18. Artikulua. Zuzendaritza Nazionala
19. Artikulua. SORTUren hauteskunde-zerrendak onartzea
20. Artikulua. Lehendakaria eta idazkari nagusia
21. Artikulua. Herrialde mailako egiturak
22. Artikulua. Eskualde mailako egiturak
23. Artikulua. Herri mailako egiturak
24. Artikulua. Berme Batzordea
25. Artikulua. Sortzaileen erreklamazio-prozedura
26. Artikulua. Kontu Batzordea
27. Artikulua. Erreferenduma/kontsulta

Laugarren kapitula.

Ekonomia- eta ondare-araubidea

- 28. Artikulua. Ekonomia- eta finantza-arduraduna
- 29. Artikulua. Baliabide ekonomikoak
- 30. Artikulua. Hasierako ondarea
- 31. Artikulua. Kontuak emateko prozedura. Administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola
- 32. Artikulua. Dokumentu-araubidea

Bosgarren kapitula.

Sortu desegitea

- 33. Artikulua. Desegitea

Lehen kapitulua.

Izena, eremua, oinarri ideologikoak, helbidea

1. Artikulua. Izena

Espainiako Konstituzioaren 6. artikulua eta Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 1. artikulua babesean, SORTU izeneko alderdi politikoa eratu da. Alderdiaren sigla "SORTU" da. Alderdiaren ikurra zortzi puntako izarra da. Izarrak zortzi atal ditu, bakoitza kolore batekoa: GORRIA (Pantone 1787 C), BERENJENA (Pantone 227 C), MOREA (Pantone 2726 C), URDINA (Pantone 3125 C), TURKESA (Pantone 3265 C), BERDEA (Pantone 375 C), HORIA (Pantone 123 C) eta LARANJA (Pantone 151 C). Atal bat (gorria) nabarmendu egiten da, gainerakoei loturik ez dagoelako. Ikurraren ondoan (eskuinean) "SORTU" logotipoa joango da, BELTZEZ (Pantone Process Black C) eta kaxa baxuan.

2. Artikulua. Eremua eta helburuak

SORTUren jarduera-eremua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa izango da. Nolanahi ere, akordio politikoak eta/edo hauteskunde-akordioak egin ahal izango ditu Espainiako Estatuko edo Europar Batasuneko beste estatu batzuetako beste alderdi politiko batzuekin, elkarlanean aritzeko eta/edo lau lurraldeez gaindiko hauteskunde-deialdietan elkarrekin parte hartzeko, betiere Euskal Estatuara eraikitzea helburu.

SORTUren helburua da demokratikoki laguntzea herritarren borondate politikoa eratzen, eta izaera politikoa duten ordezkaritza-instituzioetan haien parte-hartzea sustatzea, hauteskundeetan hautagaiak aurkeztuz eta/edo babestuz.

SORTUk erakunde politiko iraultzaile gisa definitzen du bere burua, eta bere helburua Euskal Herri independente, sozialista, feminista, ekologista eta euskalduna erdiestea da. Gaur egungo fase politikoan, horrek prozesu independentista eta eraldatzaile bat garatzea eskatzen du, estatu berezitu, burujabe eta sozialki aurreratu bat eraikitzeko: Euskal Errepublika.

3. Artikulua. Oinarri ideologikoak

SORTU ezker abertzaleko pertsonak eta erakundeak biltzen dituen mugimenduaren adierazpide politiko-organizatiboa da. SORTU alderdi-mugimendu gisa eratzen da, bere baitan bi antolakuntza-tradizio horien ezaugarriak eta jokamoldeak uztartzeko asmoz. SORTUk, mugimen-

dua den aldetik, ekarpenetarako, lanketarako eta aktibismorako espazio eta dinamika irekiak eratuko ditu; alderdi politikoa den aldetik, berriz, erakunde eta mugimendu sektorialek izaera eta irismen nazionalako proiektu politiko integral batean egiten dituzten ekarpenak bideratu eta laburbilduko ditu. Proiektu politiko horren oinarri ideologikoak honako hauek dira:

1. Independentzia

Independentzia Euskal Herriaren garapen osoa ziurtatzeko aukera bakarra delako. Eskura ditudun tresna guztiak behar ditugu eremu guztietan inolako mugarik gabe jardun ahal izateko. Eta hori, gaur egun, Euskal Herria osatzen duten zazpi lurralde historikoak bere baitan bilduko dituen Estatu bat eratuz soilik lor daiteke. Bere herritarren beharrei erantzungo dien errepublika bat, gure burujabetzatik abiatuta beste estatu, herri eta nazio batzuekin berdintasun-harremanak ezarriz.

2. Euskalduntze osoa

Euskara, Euskal Herriko berezko eta jatorrizko hizkuntza ez ezik, gizateriaren ondarea ere badelako. Eta guri –euskal herritarroi– dagokigu gure hizkuntza nazionalaren garapen osoa ziurtatzea. Euskal Herria Euskararen lurraldea izanik, herri euskaldun bat eraiki behar dugu, baina, hori bai, herritar kulturantzunez eta eleaniztunez osatua.

3. Sozialismoa

Egungo sistema kapitalista patriarkalaren eta eredu neoliberalaren aurrean eredu ekonomiko, politiko eta sozial sinesgarri eta jasangarri baten ikuspegi alternatiboa eskaini nahi dugulako, gehiengo sozial langilea gizarte justu, berdinzale eta aurrerakoi bat lortzeko protagonista nagusia izanik. Hori guztia, menderatze-harreman sozialetatik libre egongo den gizarte bat lortzera bideratutako ezkerreko estrategiak eguneratuz. Eredu horren oinarri diren eskubide indibidual eta kolektiboen garapen osorako funtsezko lehengaia Euskal Herriko emakumeak eta gizonak dira, haien gaitasunak eta prestasuna XXI. mendeko sozialismo bat eraikitzeko gure nazioaren koordinatu politiko eta ekonomikoetan.

4. Etorkizuna: Justizian eta Askatasunean oinarritutako Bakea

Bakea demokrazian eta justizia sozialean oinarritutako gizarte eredu baten euskarria delako, ez indarkeriarik eza soilik. Horregatik, indarkeriaren eta inposizioaren adierazpen oro desgertu egin behar dira Euskal Herritik, eta giza eskubide guztiak (egungo ikuspegi androzentrikoa gaindituz), eskubide zibil, politiko, sozioekonomiko eta kultural guztiak errespetatu egin behar dira. Era berean, eskubide horiek benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatu behar dira. Izan ere, herri honetako herritar guztien eskubideen errespetua izango da Euskal Herrian bake egonkor eta iraunkorra behin betiko finkatuko duena, elkarriketa parte-hartzailearen, negoziazioaren eta akordio demokratikoaren bidez. Bake egoera horretan, emakumeek eta gizonek beren etorkizunaz erabakiko dute inolako mugarik eta hipotekarik gabe.

5. Feminismoa

Emakumeok eta sistema honek zapaldutako gainerako subjektuek jasaten dugun egiturazko zapalkuntzak bizi dugun egoera aldatzeko proiektua integrala izatea eskatzen duelako. Proiektu integral horrek errealitate sozial, ekonomiko, politiko eta ideologikoa eraldatzeko ekimenak jaso behar ditu. Heteropatriarkatua, iraun eta ugaltu ez ezik, gaur egungo gizarte kapitalista kolonialaren muina da.

Eta, horretarako, emakumeen gaineko botere-harreman hierarkikoa betikotzen du. Lanaren banaketa sexuala iraunarazi behar du, emakumeak bizitzaren arlo guztietan subsidiarotasun-egoera bat jasatera kondenatuz. Halaber, era guztietako identitate, jatorri, gorputz eta desiren gaineko zapalkuntzari eusten dio, pribilegio-sistema oso bat mantentzeko asmoz. XXI. mendean, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna eta identitateen, gorputzen eta desiren gaineko subiranotasuna oinarri izango dituzten harremanak ezartzea.

6. Herrien arteko Elkartasun Internazionalista eta Antiinperialista

Laguntzatik, babesetik eta aitortzatik harago, elkartasun internazionalista eta antiinperialista mundu hobe baten aldeko borrokarekiko inplikazioa eta konpromisoa eskatzen duen estrategiatzat hartzen dugulako. Euskal Herria gainerako herri eta nazioekiko irekia izan da, da eta izango da. Beren eskubide nazionalen ukazioa eta esplotazio ekonomiko eta soziala jasaten dutenekiko solidarioa da, berak ere errealitate hori pairatzen duelako.

91

7. Ekologismoa

Egungo sistema kapitalistak merkantzia bihurtu dituelako planeta eta bere baliabideak, aurrekaririk ez duen eta giza espeziearen biziraupena bera arrisku larrian jarri duen krisi ekologiko bat sortuz. Horren aurrean, ekologikoki arrazionala izango den gizarte bat bultzatu behar dugu, ekoizpena behar sozialen eta ingurumena babesteko baldintzen arabera antolatuko duen gizarte bat.

8. Demokrazia Parte-hartzailea

Delegazionismoa, ustelkeria, klientelismoa eta instituzioen sinesgarritasun demokratikoaren andeatze gero eta handiagoa ezaugarri dituen ordezkaritza politikoko eredu baten aurrean ezinbestekoa delako gizarteari boterea ematea. Gaur egun indarrean dagoen eredu horretan, politikagintza eta herritarrek parte hartzeko mekanismoak izen ona galtzen ari dira eta sexu-genero desberdintasunek bere horretan diraute. Egoera horren aurrean, gizarteari erabaki politiko, ekonomiko eta sozialetan benetan parte hartzeko aukera emango dien eta, horrela, herri-boterea eratzea ahalbidetuko duen proiektu baten alde egiten dugu.

4. Artikulua. Helbidea eta web orria

Helbide soziala honako hau da: Zuatzu Enpresa Parkea, Easo eraikina, 4 behea, 20018 Donostia (Gipuzkoa).

SORTUren web orria www.sortu.eus da, eta helbide elektronikoa partehartu@sortu.eus.

Helbide soziala, web orria eta helbide elektronikoa Zuzendaritza Nazionalaren erabakiz aldatu ahal izango dira, Estatutu hauek aldatu beharrik gabe, baina aldaketak Alderdi Politikoen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

Bigarren kapitulua.

Militanteak (sortzaileak).

Eskubideak eta betebeharrak

5. Artikulua. Afiliazioa

Jarduteko ahalmena mugatuta edo murriztuta ez daukaten pertsona fisiko adindunak afiliatu ahal izango dira SORTUn, atzerritarrak barne (indarrean dagoen araudiak hori ahalbidetzen badu).

Erakundearen sartzen diren unetik bertatik, SORTUko afiliatu guztiek (sortzaileak) Estatutu hauetako 8. eta 9. artikuluetan jasotako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

Sortzaileen artean, SORTUk militantzia mota eta intentsitate desberdinak onartu eta ahalbidetuko ditu, parte-hartze militante puntuala eta/edo aldizkakoa barne, baina lehentasuna emango dio ekarpen militante jarraitu eta egonkorriari, ezinbestekoa baita erakundearen funtzionamendu egokirako.

SORTUk sortzaileen erregistro-liburuan jasoko du bere kideen afiliazioa. Erregistro-liburua antolakuntza-arduradun nazionalak kontrolatuko du eta hilero eguneratuko da. Herri Batzarretan eta Herrialdeko Batzarretan parte hartu ahal dutenen erroldak egiteko, dagokion batzarra egin aurreko hilabeteko azken eguneko afiliazio-datua hartuko da kontuan. Batzar Nazionalari eta Kongresu Nazionalari dagokienez, deialdia egiten den unean hurrenez hurren hiru eta sei hilabeteko antzinatasuna duten sortzaile guztiek osatuko dute parte hartu ahal dutenen errolda.

SORTUk ekarpenak egiteko eta parte hartzeko esparruak irekiko dizkio ezker abertzalearen oinarri sozial zabalari, hau da, SORTUren proiektu politikoarekin bat egin arren eta funtzionamendu kolektiboaren oinarritzko joko-araua (modu kolektiboan hartutako erabakiekiko lotura) onartuta ere SORTUn afiliatu ezin diren edo afiliatu nahi ez duten jarraitzaile guztiei.

Sortzaileek nahiz aurreko paragrafoan aipatutako jarraitzaileek uneoro izango dute beren datu pertsonalak babesteko eskubidea, indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

6. Artikulua. Afiliazio-prozedura

Afiliazio-eskaera idatziz egingo da, Zuzendaritza Nazionalak onartutako formularioa betez.

Afiliazio-eskaera antolakuntza-arduradun nazionalari helarazi beharko zaio, zuzenean, web orriaren bidez edo eskatzaileak bere jarduera militantea garatuko duen toki-erakundearen birtartez (toki-erakunde horrek ahalik eta lasterren helarazi beharko dio). Afiliazio-eskaera jaso ondoren, Zuzendaritza Nazionalak onartu edo ezetsi egingo du, hilabeteko epean. Isiltasuna positibotzat hartuko da. Eskaera egiteko bi modu horietan, hilabeteko epea Zuzendaritza Nazionalak eskaera jasotzen duen egunean hasiko da, eta Zuzendaritza Nazionalak berak eskatzaileari jakinaraziko dio.

Zuzendaritza Nazionalak afiliazioa ukatzea erabakitzen badu, eskatzaileak erabaki horren kontrako errekurtsua jar dezake Kontseilu Nazionalaren aurrean, hogeita hamar eguneko epean. Kontseilu Nazionalaren erabakiaren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

7. Artikulua. Kuota

SORTUn afiliatzeak Zuzendaritza Nazionalak finkatutako kuota ordaintzeko betebeharra daukar. Kuota horretan, kontuan hartuko dira suerta daitezkeen egoera soziorabakal eta afiliazio bikoitzak (SORTUn eta EH Bildun).

91

8. Artikulua. Sortzaileen eskubideak

Sortzaileen oinarrizko eskubideak honako hauek dira:

- a. SORTUren jardueretan eta gobernu- eta ordezkaritza-organoetan parte hartzea, botoa emateko eskubidea erabiltzea eta ordezkari gisa hautatua izan den organoetara joatea, Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.
- b. Barne-ordezkaritza karguetarako hautatua izatea eta Estatutu hauen arabera ordezkari bidezko parte-hartzea behar duten organo eta ekitaldietan ordezkari izatea.
- c. Informazioa jasotzea gobernu- eta administrazio-organoen osakerari buruz, gobernu-organoei hartutako erabakiei buruz, egindako jarduerari buruz eta egoera ekonomikoari buruz.
- d. Alderdi politikoaren organoen erabakiak Berme Batzordearen aurrean inpugnatzea, Legearen edo Estatutu hauetan xedatutakoaren kontrakoak direla uste badu.
- e. SORTUren helburuak betetzen laguntzea, ekimenak aurkeztuz, dedikazio pertsonalaren bidez eta ekarpen ekonomikoak eginez.
- f. Iritziak erabateko askatasunez eta naturaltasunez adieraztea, kritikarako eskubide osoarekin, eta ordezkaritza-organoen aurrean iradokizunak eta kexak aurkezteak.

- g. Begirune osoz tratatua izatea eta alderdikideek beraren iritziak ez gutxiestea.
- h. Prestakuntza politikoa jasotzea.
- i. SORTUren eta instituzio publikoetan dituen ordezkarien ekintza politikoa kontrolatzea.
- j. Ezein arrazoirengatik diskriminatua ez izatea.
- k. Sortzaileen eskubideak defendatzeaz arduratzen den organora jotzea.

9. Artikulua. Sortzaileen betebeharrak

Sortzaile guztiek Estatutuetao xedapenetatik eratorritako betebeharrak beteko dituzte, eta, betiere, honako hauek:

- a. Alderdi politikoaren helburuekin bat etortzea eta helburu horiek lortzen laguntzea.
- b. Estatutueta, barne-araudietan eta legeetan xedatutakoa betetzea.
- c. SORTUren gobernu-organismoek baliozkotasunez hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.
- d. Estatutu hauen arabera sortzaile bakoitzari dagozkion kuotak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- e. SORTUk deitutako ekintza organiko eta politikoetan aktiboki parte hartzea.
- f. Gainerako sortzaileak zor zaien begiruneaz tratatzea, haien iritziak gutxietsi gabe eta parte hartzeko nahiz ekarpenak egiteko militantzia mota eta intentsitate guztiak errespetatuz.
- g. Desadostasunak adierazteko, SORTUren baitan legitimoki ezarritako bideak eta esparruak erabiltzea.
- h. SORTUk indarkeria matxistako kasuak kudeatzeko onartuta daukan barne-protokoloa ezagutzea, errespetatzea eta aplikatzea.
- i. SORTUren ideia politikoak eta gobernu-organismoek hartutako erabakiak zabaltzea.
- j. Alderdi politikoak norberaren funtzioak betetzeko esleitutako ondasunak, baliabideak eta ahalmenak xede horretarako bakarrik erabiltzea, eta erabileraren inguruan kontuak ematea.

10. Artikulua. Sortzailearen baja

Sortzaile izaera borondatezko bajaren bidez galduko da. Baja-eskaera idatziz helaraziko zaio antolakuntza-arduradun nazionalari, zuzenean, web orriaren bidez edo dagokion toki-erakundearen bitartez (toki-erakunde horrek ahalik eta lasterren helarazi beharko dio). Halaber, sortzaile izaera galduko da kuotaren ordainketa egunean ez edukitzeagatik (horretarako arrazoi nahikorik gabe) edo erakundetik kanporatua izateagatik.

11. Artikulua. Diziiplina-araubidea

Sortzaileak zigortu ahal izango dira SORTUren oinarri ideologikoen eta Estatutuen kontrako jarduerengatik edo ez-egiteengatik eta organo eskudunek araututako hutsegiteak egiteagatik.

Batzar Nazionalak sortzaileen berme eta diziiplina kodea onartuko du. Kode horretan, hutsegi-teen tipifikazioa, zehapenak eta zehapen-prozedura jasoko dira.

Hirugarren kapitulua.

Ordezkaritza-, gobernu- eta administrazio-organoak

12. Artikulua. Printzipio orokorrak eta funtzionamenduari buruzkoak

Erakundearen egiturak eta funtzionamenduak barne-demokraziako irizpideei erantzungo diete, eta irizpide horien arabera ezarriko diren arauak bermatuko dute kide guztiek (emakumeek nahiz gizonek) baldintza eta aukera berdinekin parte hartu ahal izango dutela borondate kolektiboaren osaketan. Era berean, barneko erabakitze-organoen burujabetza bermatuko dute: organo horiek erabateko autonomiaz jardungo dute eztabaidetan eta alderdi politikoa-
ren ildo politikoa finkatzeko orduan. Horren ondorioz:

1. Sortzaile guztien berdintasuna ezarriko da, pertsona bat boto bat printzipioan oinarrituta.
2. Kongresuetako erabaki guztiak sufragio unibertsal eta zuzenaren bidez hartuko dira.
3. SORTUren zuzendaritza-organoetako kargudun guztiak sufragio unibertsal eta zuzenaren bidez hautatuko dira.
4. Sortzaile guztiek SORTUren zuzendaritza nazionala eta herrialde mailako nahiz herri mailako zuzendaritzak hautatu ahalko dituzte eta zuzendaritza horietarako hautatuak izan ahalko dira.
5. Maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketa kontrolatzeko eta fiskalizatzeko mekanismoak egongo dira.
6. SORTUren zuzendaritza-organoetako edozein kide kargugabetzeko mekanismoak egongo dira. Kargu horretarako hautatu duen batzarreko sortzaileen ehuneko jakin batek hala eskatzen badu aktibatuko dira mekanismo horiek.
7. Afiliatuek alderdiko organoen erabakien inguruko erreklamazioak egiteko prozedurak egongo dira.
8. Gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna bermatzeko neurriak ezarriko dira, zuzendaritza-organoetarako, hauteskunde-zerrendetarako, bozeramailetzetarako, lantaldeetarako eta abarretarako.

9. Muga bat ezarriko zaio agintaldien kateamenduari.
10. Bateriaezintasun-irizpideak ezarriko dira, karguak (barnekoak nahiz kanpokoak) ez metatzeko edo aldi berean ardura asko ez bateratzeko.
11. Antolakuntzaren nahiz kontuen arloko gardentasuna bermatuko da, eta eztabaidak ebazteko bide eta prozedura egokiak ezarriko dira.
12. Erreferendum-prozedurak artikulatuko dira garrantzi handiko erabakiak hartzeko.
13. Gutxiengoak bere tesiak alderdi politikoaren barruan defendatzeko eta adierazteko duen eskubidea errespetatuko da.
14. Barne-korranteak eratzeko aukerarik ez da egongo, guztiz kaltegarritzat jotzen direlako SORTUn beharrezkoak diren aniztasunerako, demokraziarako eta kohesiorako.

Bere antolakuntza-bizitzan, SORTUk barneko adierazpen-askatasuna bermatuko du, bai eta eztabaida irekia, askea eta parte-hartzailea ere. Gainerako sortzaileak errespetatzea eta Estatutuetan nahiz araudietan xedatutako guztia betetzea izango da muga bakarra.

13. Artikulua. SORTUren gobernu-organoak

SORTUren gobernu-organoak honako hauek dira: Kongresu Nazionala, Batzar Nazionala, Zuzendaritza Nazionala, Lehendakaria, Idazkari Nagusia, Herrialdeko Batzarrak, Herrialdeko Kontseiluak (halakorik dagoen kasuetan), Herrialdeko Zuzendaritzak, Herri Batzarrak, Herriko Kontseiluak (halakorik dagoen kasuetan) eta Herriko Zuzendaritzak.

Gobernu-organoak bost urtean behin berrituko dira.

Gobernu-organoek beren jardura politiko propioa garatzen dute barne-demokrazia errespetatuz, kideen jardura eta ekimena bultzatuz eta beharrezkoak diren barne-harreman organikoen bidez.

14. Artikulua. SORTUren organo guztietarako printzipioak eta funtzionamendu-arau orokorrak

1. Estatutu hauetan jasotzen diren kide anitzeko organoen bilerak, espresuki beste epe bat ezartzen den kasuetan izan ezik, zentzuzko aurrerapenarekin deitu beharko dira, eta guxtienez 48 ordu lehenago, dagokion organoa osatzen duten kide guztiei zuzendutako idatzizko jakinarazpen baten bidez (ahal dela, elektronikoki). Jakinarazpen horretan bileraren gai-zerrenda, eguna, ordua eta tokia adierazi beharko dira. Egiaztatutako larrialdietan bakarrik deitu ahal izango dira gutxieneko epea edo adierazitako prozedura errespetatzen ez duten bilerak.

2. Organoa balio osoz era dadin, eta Estatutu hauetan besterik xedatzen ez bada, kide guztien herena bertaratu behar da, urgentziazko kasuetan izan ezik. Kasu horietan, organoaren buru edo zuzendari den kideak hura quorum txikiagoarekin eratzeko arrazoiak azalduko ditu eta haren proposamenak bozkatu egingo dira. Hartutako erabakiak ahalik eta azkarren berretsi beharko dira. Kongresu Nazionala eta Batzar Nazionala eratzeko, quoruma bertaratzeko eskubidea duten ordezkarien kopuruari dagokio beti.
3. Kide anitzeko organo guztietan, organoaren buru edo zuzendari den kideak antolatuko ditu eztabaidak eta deliberazioak. Hitz-hartzeen kopurua eta denbora handitu edo murriztu ahal izango ditu, eta eztabaida ixtea erabaki dezake, gaia behar beste eztabaidatu dela uste badu.
4. Gai-zerrendan agertzen den puntu bakoitza aurkeztu ondoren, dagokion organoko kideei eman behar zaie hitza, hala eskatzen badute. Kide batek edo batzuek lehenago hitz egin duen norbaitek emandako argudioen kontra eginez gero, lehenago hitz egin duen kide horrek erantzuteko edo zuzentzeko eskubidea izango du, behin bakarrik eta lehendakariak agintzen duen denboraz. Era berean, erantzunari erantzuteko eskubidea egongo da, denbora berberaz. Hori guztia, gai bakoitzari buruzko erabakia hartu baino lehen.
5. Erabakiak botoen gehiengo soilez hartuko dira, Estatutuen arabera gehiengo kualifikatua behar duten kasuetan izan ezik.
6. Bertaratutako kideen bostenak gutxienez hala eskatzen badu, kide anitzeko organoetako edozein bozketa isilpeko botoaren bidez egin beharko da. Egoera hori aktan jaso beharko da, baita bozketa bitarteko telematikoen bidez egiten denean ere.
7. Bileran hartutako erabakiak akta batean jaso beharko dira, organoa osatzen duten kide guztien eskura jartzeko. Akta guztiak artxibo bakar batean bilduko dira, organoko idazkari-funtzioa betetzen duen kideak gainbegiratuta.
8. Sortzaileek alderdi politikoaren organoen bileren aktak ikusteko eskubidea izango dute. Horretarako, arrazoitutako eskaera egin beharko da. Eskaera egiten zaion organoaren esku eratuko da hura onartzea, legez babestutako datuei buruzkoa ez bada.
9. Estatutu hauetan aurreikusita ez dagoen guztia Batzar Nazionalak onartutako Funtzionamendu Araudiaren bidez xedatuko da.

15. Artikulua. Kongresu Nazionala

1. Kongresu Nazionala SORTUren organo gorena da eta honako eskumen hauek ditu: alderdi politikoaren ildo ideologikoa, ildo politikoa eta estrategia onartzea eta Estatutuak aldatzea.

Kongresu Nazionalean parte hartu ahal izango dute, hitzarekin eta botoarekin, deialdia egiten den unean gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna duten sortzaile guztiek. Kongresuaren eratzea baliozkoa izan dadin, gutxienez sortzaile horien % 15ek parte hartu beharko dute.

Ohiko Kongresua bost urtean behin egingo da, Batzar Nazionalak deituta. Ezohiko Kongresua, berriz, Batzar Nazionaleko gehiengo batek hala eskatzen duenean egingo da, Idazkari Nagusiak, Kontseilu Nazionalaren gehiengo osoak edo herrietako zuzendaritzen % 20k eskatuta.

Kongresua egiteko egunak eta lekua Batzar Nazionalak finkatuko ditu, 60 egun lehenago gutxienez.

Kongresu-prozesua hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez, Zuzendaritza Nazionalak honakoa bidaliko die kongresukide guztiei: behin-behineko gai-zerrendaren proposamena, Kontseilu Nazionalak landutako oinarritzko ponentziaren edo ponentzien kopia, eta Kontseilu Nazionalaren, Zuzendaritza Nazionalaren, Berme Batzordearen eta Kontu Batzordearen kudeaketa-memoriak.

2. Kongresukideek gai-zerrendari buruzko iradokizunak egin ahal izango dituzte. Halaber, proposamenak, zuzenketa partzialak edo ponentzia alternatiboak aurkeztu ahal izango dituzte oinarritzko ponentzian edo ponentzietan jasota dauden gaietarako buruz nahiz jasota ez dauden beste gai batzuen inguruan, baldin eta Kongresuaren aurreko eztabaidetan gutxienez kongresukide guztien % 30en babesarekin lortzen badute. Zuzendaritza Nazionalak bermatuko du proposamen horiek Kongresuaren aurretik eztabaidatuko direla, Kongresuaren gai-zerrendan sartuko dituen ala ez erabakitzeko.
3. Kongresu Nazionalaren garapenean, eztabaidarako eta erabakiak hartzeko prozedura presentzialak eta telematikoa uztartu ahal izango dira. Nolanahi ere, Kongresua egiteko ezarritako eguna baino hamabost egun lehenago gutxienez, Kontseilu Nazionalak memoria bat bidaliko die kongresukide guztiei, jasotako zuzenketa eta proposamen guztiekin.
4. Kongresu Nazionalaren buru izango den mahaia Kontseilu Nazionalak proposatuta hautatuko da. Kongresua presentziala bada, bertaratutako botoen bidez hautatuko da. Kongresua telematikoki egiten bada, aldiz, Kontseilu Nazionalak izendatuko du.
5. Kongresu Nazionaleko erabakiak botoen gehiengo soilez hartuko dira, SORTU desagiteari buruzkoa izan ezik, erabaki hori 33. artikuluan ezarritako gehiengoarekin hartu beharko baita.

15

16. Artikulua. Batzar Nazionala

1. Batzar Nazionala SORTUren organo gorena da kongresu arteko aldiaren, eta Kongresu Nazionalean hartutako erabakiak betetzen direla bermatzeaz arduratzen da.
2. Batzar Nazionala bi modalitatetan egin ahal izango da:
 - Unibertsala. Deialdia egiten den unean gutxienez hiru hilabeteko antzintasuna duten sortzaile guztiek parte hartu ahal izango dute, hitzarekin eta botoarekin.
 - Delegatua. Herrietako arduradun politiko guztiek, Kontseilu Nazionaleko kideek, Herrialdeko Zuzendaritzetako kideek eta Herrialdeko Kontseiluetako kideek parte hartu ahal izango dute, hitzarekin eta botoarekin.

3. Batzar Nazionala egiteko quoruma honako hau izango da: % 5 modalitate unibertsalean, eta herrietako arduradun politikoen % 60 modalitate delegatuan.
4. Modalitate delegatuan erabakiak hartzeko, herrietako arduradun politikoei alde aurretik beren herrietako batzarren iritzia jaso behar dute, eta iritzi horren arabera jardungo dute.
5. Ohiko batzarra gutxienez urtean bitan egingo da, Zuzendaritza Nazionalak deituta. Ezohiko batzarra, berriz, herrietako zuzendaritzen % 20k lehendakariari edo idazkari nagusiari zuzendutako idazki baten bidez hala eskatzen dutenean egingo da, gehienez ere hilabete-ko epean. Deialdia gutxienez 15 egun lehenago egingo da, honakoa zehaztuz: modalitatea, egunak, lekua eta aztertu beharreko gaien zerrenda.
6. Batzar Nazionalak honako eskumen hauek ditu:
 - Kongresu Nazionalerako deialdia egitea.
 - Urtero Kontseilu Nazionalaren kudeaketa baloratzea.
 - SORTUren aliantza- eta itun-politika onartzea, federazioetan edo koalizioetan parte hartzea barne.
 - Kontseilu Nazionalak proposatuta, SORTUren urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzea.
 - Berme Batzordeak egiten duen lana ezagutzea, urteko kudeaketa-txostenari buruzko eztabaidaren eta bozketaren bidez.
 - Estatutuak garatuko dituzten araudiak onartzea.
 - Antolakuntzaren arloan beharrezkoak diren doikuntzak egitea. Besteak beste, Zuzendaritza Nazionalan eta/edo Kontseilu Nazionalan hutsik geratzen diren lekuak bete-tzea. Halaber, Zuzendaritza Nazionalako eta Kontseilu Nazionalako kideen aurka aurkeztutako errelokazio-eskaerak ebatziko ditu.
7. Batzar Nazionalako erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, gehiengo osoa behar duten honako hauek izan ezik:
 - a. Kontseilu Nazionalak proposatuta, Kongresu Nazionalerako gai-zerrenda onartzea.
 - b. Kontseilu Nazionalak proposatuta, Kongresu Nazionala antolatuko duen batzordea hautatzea.
8. Lehendakaria edo idazkari nagusia izango da Batzar Nazionalaren buru.
9. Ikasturte politikoaren amaieran (salbu eta, behar bezala arrazoituta, Zuzendaritza Nazionalak beste data bat jartzen badu) Konferentzia Nazional izaerako Batzar Nazionala egingo da. Modalitate unibertsaleko Batzar Nazionalerako finkatutako irizpide berberak beteko ditu, ezberdintasun batekin: sortzaileek (hitzarekin eta botoarekin) eta 5. artikuluan aipatutako jarraitzaileek (hitzarekin baina botoarik gabe) parte hartu ahal izango dute.

Bertan, Kontseilu Nazionalak ikasturte politikoaren balantzea aurkeztuko du, egoeraren azterketa egingo du eta ikasturte berrirako jarduera-ildoak ezarriko ditu, Kongresu Nazionalan finkatutako ildoei jarraituz.

17. Artikulua. Kontseilu Nazionala

1. Kontseilu Nazionalari dagokio SORTUren epe ertaineko zuzendaritza politikoa egitea, Kongresu Nazionalak eta Batzar Nazionalak zehaztutako eta onartutako ildoaren baitan.
2. Kontseilu Nazionala gutxienez hiru hilean behin bilduko da, Zuzendaritza Nazionalak gutxienez 48 ordu lehenago deituta.
3. Kontseilu Nazionalaren erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, kide guztiei bilera-deialdiaren berri eman behar zaie eta gehiengo soilaren bertaratze-quoruma egon behar da.
4. Gai-zerrendan aurreikusita ez dauden gaiak sartzeko, nahikoa izango da Kontseilu Nazionalako 5 kideren sinadura, betiere proposamena bileraren hasieran aurkezten bada.
5. Kongresu Nazionalak hautatutako hogeita hamar pertsonak osatuko dute Kontseilu Nazionala. Zehazki, hau izango da osaera:
 - Lehendakaria.
 - Zuzendaritza Nazionaleko kideak.
 - Herrialde-irizpidez hautatutako bost kide.
 - Nazio-irizpidez hautatutako hamar kide.
6. Lehendakaria eta Zuzendaritza Nazionaleko kide guztiak (Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko arduradun politikoak izan ezik) batera hautatuko dira, hau da, hautagai-zerrenda kolektiboa osatuko dute. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko arduradun politikoak, herrialde-irizpidez hautatutako bost kideak eta nazio-irizpidez hautatutako hamar kideak banaka hautatuko dira, hau da, banakako hautagaiak izango dira.
7. Lehendakaria, Zuzendaritza Nazionaleko kide guztiak (Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko arduradun politikoak izan ezik) eta nazio-irizpidez hautatutako hamar kideak kongresukide guztiek hautatuko dituzte, Kongresu Nazionalan. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko arduradun politikoak eta herrialde-irizpidez hautatutako bost kideak dagokien herrialdeko kongresukideek hautatuko dituzte.
8. Kontseilu Nazionaleko kide guztiak euskaldunak izango dira, eta gutxienez % 40 emakumeak. Bestetik, haren osaeran gutxieneko lurralde-oreka bat bermatzeko, herrialde bakoitzeko kideen ehunekoak afiliatuen gutzizko kopuruan herrialde horretako sortzaileei dagokien ehunekoaren bi heren izango da gutxienez. Horretarako egin beharko liratekeen zuzenketak nazio-irizpidez hautatu beharreko hamar pertsonen aplikatuko litzaizkieke.
9. Kontseilu Nazionalak honako eskumen hauek ditu:
 - SORTU partaide den federazioen estatutuak edo koalizioen funtzionamendu-arauak aldatzea.

- SORTU partaide den federazioetan kideak gehitzea.
 - SORTU partaide den federazioek koalizioak osatzea.
 - SORTU partaide den federazioen edo koalizioen hauteskunde-zerrendetan berari dagozkion kargu publikoetarako hautagaiak izendatzea. Eskumen hori beheragoko zuzendaritza-organoen esku utz dezake.
 - SORTU partaide den federazioetako edo koalizioetako organoetan berari dagozkion ordezkariak izendatzea. Eskumen hori beheragoko zuzendaritza-organoen esku utz dezake.
 - Zuzendaritza Nazionalak diziplinaren eta afiliazioaren arloan hartutako erabakien aurkako errekursoak ebaztea.
 - Herri mailako organoen, herrialde mailako organoen eta Zuzendaritza Nazionalaren erabakiak balio gabetzea, baldin eta Estatutuak edo alderdi politikoaren organo gorenen ebazpenak urratzen badituzte. Erabaki horien kontrako errekursoa jar daiteke Berme Batzordearen aurrean.
 - Batzar Nazionalari proposatzea Estatutuak garatuko dituzten araudiak.
 - Zuzendaritza Nazionalak beraren esku uzten dituen erabaki guztiak.
10. Kontseilu Nazionalak gai jakin batzuk lantzeko interesgarritzat jotzen dituen pertsonak gehitu ahal izango ditu, lehendakariak edo idazkari nagusiak proposatuta, horretarako soilik eta boto-eskubiderik gabe.
11. Idazkaritza Teknikoren eta Euskal Herriko Harremanen arduradunak organo nazional guztien akta-liburuak kontrolatu eta zainduko ditu. Halaber, organo horiek hartzen dituzten erabakien ziurtagiriak egiteko ahalmena izango du.

18. Artikulua. Zuzendaritza Nazionala

1. Zuzendaritza Nazionalari dagokio SORTUren epe laburreko zuzendaritza politikoa egitea, Kongresu Nazionalak eta Batzar Nazionalak zehaztutako eta onartutako ildoaren baitan.
2. Gutxienez bi astean behin bilduko da, lehendakariak edo idazkari nagusiak gutxienez 48 ordu lehenago deituta.
3. Zuzendaritza Nazionalaren erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko dira, espresuki aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, kide guztiei bilera-deialdiaren berri eman behar zaie eta gehiengo soilaren bertaratze-quoruma behar da
4. Gai-zerrendan aurreikusita ez dauden gaiak sartzeko, nahikoa izango da Zuzendaritza Nazionalako 3 kideren sinadura, betiere proposamena bileraren hasieran aurkezten bada.
5. Kongresu Nazionalak hautatutako 15 pertsonak osatuko dute Zuzendaritza Nazionala. Zehazki, hau izango da osaera:
 - Idazkari nagusia.

- Idazkaritza Teknikoaren eta Euskal Herriko Harremanen arduraduna (idazkariorde lehena).
 - Barne-koordinatzailea (idazkariorde bigarrena).
 - Norabidetze Estrategikorako Gunearen arduraduna (idazkariorde hirugarrena).
 - Ekintza Politikoko arduraduna.
 - Herrigintza arduraduna.
 - Antolakuntza arduraduna.
 - Komunikazio arduraduna.
 - Nazioarteko Politikaren eta Harremanen arduraduna.
 - Gatazkaren ondorioen konponbiderako batzordearen arduraduna.
 - Arabako arduradun politikoa.
 - Bizkaiko arduradun politikoa.
 - Gipuzkoako arduradun politikoa.
 - Nafarroako arduradun politikoa.
 - Ipar Euskal Herriko arduradun politikoa.
6. Zuzendaritza Nazionaleko kide guztiak euskaldunak izango dira, eta gutxienez % 40 emakumeak.
7. Zuzendaritza Nazionalak honako eskumen hauek ditu:
- SORTUren baliabideak eta ondarea administratzea.
 - SORTUren helburuak betetzeko beharrezkoak diren jardura guztiak egitea eta haren proiektu politikoak koordinatzea.
 - Herriko eta Herrialdeko Zuzendaritzak eta (halakorik dagoen kasuetan) Kontseiluak ikuskatzea, dinamizatzea, koordinatzea eta informatzea.
 - SORTUko kargudun publikoen jardura baloratzea.
 - Diziplina-kodean esleitzen zaizkion funtzioak betetzea.
 - Beste erakunde politiko eta sozial batzuekin harremanak izatea.
 - Hauteskunde-kanpainen antolaketa eta aurrekontua onartzea.
 - Alderdi politikoaren barne-antolakuntza bideratzea eta herri mailan dituen erakundeak hedatzea.
 - Batzar Nazionala zein modalitatetan egingo den erabakitzea.
8. Zuzendaritza Nazionalak gai jakin batzuk lantzeko interesgarritzat jotzen dituen pertsonak gehitu ahal izango ditu, Idazkari Nagusiak proposatuta, horretarako soilik eta boto-eskubiderik gabe.

19. Artikulua. SORTUren hauteskunde-zerrendak onartzea

Zuzendaritza Nazionalak Zerrenda Batzorde Nazionala hautatuko du. Batzorde horren funtzionamendua eta osaera araudi bidez xedatuko dira.

Kargu publikoetarako hautagaien zerrendak Batzar Nazionalak ezarritako arau eta irizpide hauen arabera osatuko dira:

1. Bi lurralde mailatan baino gehiagotan hautetsi gisa jarduteko bateraezintasuna, salbu eta kargu horiek legez lotuta badaude.
2. SORTUren bizitzan parte hartzea.
3. Institutuzio bakoitzean egin behar den lana egiteko gaitasuna.
4. Karguak berritu egin behar direla aintzat hartzea.

SORTUK aurkezten duen edozein hauteskunde-zerrendatan hautagai izateko, Estatutu haue-
tan jasotako oinarri ideologikoak eta jardun politikoaren arloko konpromisoak onartu behar
dira, zerrendak aurkeztu aurretik.

20. Artikulua. Lehendakaria eta idazkari nagusia

1. Lehendakariari dagokio:
 - a. Batzar Nazionalaren eta Kontseilu Nazionalaren bileretan eta bera presente dagoen ekitaldi eta bilera organikoetan buru izatea.
 - b. Idazkari Nagusia ordezkatzeari edozein arrazoiengatik bere kargua bete ezin duenean.
2. Idazkari nagusiari dagokio:
 - a. SORTUren politika eta estrategia koordinatzea.
 - b. Kontseilu Nazionalaren eta Zuzendaritza Nazionalaren lanak koordinatzea.
 - c. SORTUren legezko ordezkari gisa aritzea edozein organoren aurrean, eta, bereziki, ad-
ministrazio- edo jurisdikzio-organoen aurrean, bere kabuz edo behar bezala ahaldun-
dutako pertsona baten bidez.
 - d. Kontseilu Nazionalaren eta Zuzendaritza Nazionalaren bozeramailea izatea.
 - e. SORTU politikoki ordezkatzeari parte hartzen duen ekitaldi guztietan.
 - f. Lehendakaria ordezkatzeari edozein arrazoiengatik bere kargua bete ezin duenean edo
kargua hutsik dagoenean.

20

21. Artikulua. Herrialde mailako egiturak

Herrialde mailako antolakuntzari dagokionez, minimo bat ezartzen da: batetik, Herrialdeko
Zuzendaritza; eta, bestetik, Herrialdeko Batzarrak egiteko aukera. Hortik aurrera, herrialde ba-
koitzak (herrialdeko sortzaileak, Herrialdeko Batzarrean bilduta) erabakiko du zeintzuk diren
herrialdean garatu beharreko dinamika politikoak eskatzen dituen antolakuntza-baliabideak.

1. Herrialdeko Batzarra

Herrialdeko Batzarra herrialde mailako erabakitze-organo gorena da eta lurralde-eremu ho-
rretako sortzaile guztiek osatzen dute.

Ez du aldizkakotasun finkorik izango, baina urtean bitan gutxienez bildu beharko da. Deialdia herrialdeko arduradun politikoak egingo du.

Herrialdeko Batzarrari dagokio antolakuntzaren arloan beharrezkoak diren doikuntzak egitea. Besteak beste, Herrialdeko Zuzendaritzan eta/edo (halakorik dagoen kasuetan) Herrialdeko Kontseiluan hutsik geratzen diren lekuak betetzea. Halaber, Herrialdeko Zuzendaritzako eta/edo (halakorik dagoen kasuetan) Herrialdeko Kontseiluko kideen aurka aurkeztutako errebo-kazio-eskaerak ebatziko ditu.

2. Herrialdeko Kontseilua

Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, lurralde horietako sortzaileek kontrakoa erabakitzen ez badute, Herrialdeko Kontseilua egongo da. Bigarren zuzendaritza-ganbera bat izango da, eta, Kontseilu Nazionala bezalaxe, dagokion herrialdean epe ertaineko zuzendaritza politikoa egiteaz arduratuko da, Herrialdeko Batzarrak erabakitzen duen konfigurazioarekin eta esleitzen dizkion zeregin zehatzen arabera. Edonola ere, Herrialdeko Zuzendaritzako kideak Herrialdeko Kontseiluan egongo dira.

3. Herrialdeko Zuzendaritza

Herrialdeko Zuzendaritzak herrialdeko ildo politikoa planifikatu eta dinamizatuko du, SORTUren ildo politiko nazionala garatuz –herrialde bakoitzeko berezitasunekin– eta bere lan ildo propioekin osatuz.

Osaera honako hau izango da:

- Herrialdeko arduradun politikoa. Herrialdeko kongresukideek hautatuko dute, Kongresu Nazionalan.
- Hiriburuko arduradun politikoa. Hiriburuko Batzarrak hautatuko du.
- Zuzendaritza Nazionalak beharrezkotzat jotzen dituen bestelako kideak. Herrialdeko Batzarrak hautatuko ditu.

Pertsona horiek guztiek zuzendaritza-talde funtzional eta autosufiziente bat osatuko dute. Ez dute ardura nominal zehatzik izango, eta euren artean banatuko dituzte, alde batetik, esku-hartze ildoak edo eremuak, eta, beste alde batetik, herriak eta haien jarraipena, hau da, antolakuntzaren arloko zereginak eta ildo politikoa herrietara transmititzeko lana.

Herrialdeko Zuzendaritza astero bilduko da, herrialdeko arduradun politikoak deituta.

4. Herrietako arduradun politikoen herrialde mailako bilgunea

Herrietako arduradun politikoen bilgune bat egongo da herrialde mailan. Hilean behin bilduko da, koordinaziorako eta informazioa transmititzeko soilik.

22. Artikulua. Eskualde mailako egiturak

Eskualde mailan ez da zuzendaritza-organorik egongo. Koordinazio-gunea (eskualdeko herrietako arduradun politikoen bilgunea) eta erabakitze-gunea (eskualdeko sortzaile guztien batzarra) soilik eratuko dira, baina kasu zehatzetarako eta behar-beharrezkoa denean soilik. Nolanahi ere, bi salbuespen egongo dira: alde batetik, herri txiki-txikiz osatuta dauden eta, hain zuzen ere horregatik, herri bat balira bezala funtzionatzen duten eskualdeak; eta, beste alde batetik, dinamika politiko propioa daukaten eta, hain zuzen ere horregatik, Eskualdeko Batzarrak zuzendaritza-gune bat (Eskualdeko Zuzendaritza) edukitzea beharrezkotzat jotzen duten eskualdeak.

Koordinazio-gunea edo erabakitze-gunea biltzeko deialdia guneak berak egin dezake, edo herrialdeko arduradun politikoak, edo dagokion eskualdea osatzen duten herrien ardura duen Herrialdeko Zuzendaritzako kideak. Herri Batzar batek eskatuta ere deitu ahal izango dira, baldin eta eskaera horrek eskualdeko gainerako herrietako batzarren onespena badu.

23. Artikulua. Herri mailako egiturak

A. Herri Batzarra

Herri Batzarra herri mailako erabakitze-organo gorena eta bilgune nagusia da, eta lurralde-eremu horretako sortzaile guztiek osatzen dute.

Herriko Zuzendaritzak deituta eta sortzaile guztiei deialdia eta gai-zerrenda bidali ondoren, Herri Batzarra behar beste aldiz bilduko da, hau da, herriko dinamika politikoak edo gai zehatz batek hala eskatzen duen bakoitzean. Nolanahi ere, berak erabakitako gutxieneko maiztasunarekin bildu beharko da.

Herri Batzar bakoitzak ordezkaritza izango du Batzar Nazionalaren modalitate delegatuan, herriko arduradun politikoaren bidez.

Herri Batzarrak erabakiko du Herriko Kontseilua eratzea beharrezkoa den ala ez. Halaber, herriko arduradun politikoa hautatuko du eta Herriko Zuzendaritzaren nahiz (halakorik dagoen kasuetan) Herriko Kontseiluaren osaera erabakiko du. Herriko arduradun politikoa bi organo horietako kide izango da beti.

Herri Batzarra zereginak sortzaileen artean banatzeaz arduratuko da.

B. Herriko Kontseilua

Herriko Kontseilua egongo da herriko dinamika politikoak hala gomendatzen edo justifikatzen duen kasuetan, hala nola hiriburuetan, hiriguneetan eta herririk handienetan. Hala ere, kasu guztietan, Herri Batzarrak erabakiko du organo hori beharrezkoa den ala ez. Beharrezkotzat jotzen badu, berak erabakiko du haren osaera, aldizkakotasuna, hautatzeko metodoa, funtzioak, eta abar. Hori guztia herriko funtzionamendu-araudi batean dokumentatuta geratu ahal izango da.

Edonola ere, Herriko Zuzendaritzako kideak Herriko Kontseiluan egongo dira, eratzten diren lantaldeetako arduradunekin batera.

C. Herriko Zuzendaritza

Herri Batzarraren organo delegatua da eta haren funtzioak honako hauek dira:

- Herri mailako zuzendaritza egitea.
- Herri Batzarra dinamizatzea.
- Herri Batzarrari ildo politiko orokorraren herri mailako itzulpena proposatzea, proposamena onartzeko, aldatzeko edo ezesteko.
- Herri Batzarrari zereginen banaketa zehatz bat proposatzea.
- Eguneroko zeregin politikoak egitea.

Herri Batzarrak beharrezkotzat jotzen dituen pertsona guztiek osatuko dute Herriko Zuzendaritza, herriko arduradun politikoarekin batera. Haiek guztiek zuzendaritza-talde funtzional eta autosufiziente bat osatuko dute, eta haien zeregin nagusiak honako hauek izango dira: oinarri militantea aktibatzea, zereginak banatzea eta ahal beste militante Plan Politikoaren inguruan lanean jartzea.

24. Artikulua. Berme Batzordea

1. Berme Batzordea SORTUren funtzionamendu demokratiko eta gardena zaintzeaz eta sortzaileen eskubideak defendatzeaz eta bermatzeaz arduratuko da. Halaber, sortzaileek eta organo guztiek Estatutu hauek betetzen dituztela zainduko du.
2. Bere funtzioak betetzeko askatasuna, agintea eta independentzia ditu. Ematen dituen ebazpenak eta aholkuak arrazoiak izango dira beti. Halaber, SORTUren Estatutuen eta araudien interpretazioari buruzko txostenak egingo ditu.
3. Estatutuen eta araudien inguruko eskumen-gatazkak eta diziplina-espedienteak ebazteko aginpidea dauka. Diziplina-espedienteetan, azken instantzia gisa jardungo du.
4. Estatutuetan jasotako eskubideren bat urratu zaiela uste duten sortzaileek nahiz gobernu-organoei babes eske jo dezakete organo honetara.
5. Kongresu Nazionalak hautatutako 5 kidez osatuta egongo da. Kide horietatik, 2 gutxienez emakumeak izango dira. Batzordea osatzen duten kideen artean lehendakaria eta idazkaria hautatuko dira.
6. Berme Batzordeak bere araudiaren arabera jardungo du. Eta Batzar Nazionalak onartuko du araudi hori.
7. Berme Batzordeko kide izatea bateraezina da beste edozein kargu organiko edo publiko edukitzearekin.

8. Urtero, sortzaileei edo SORTUren gobernu-organoei eragiten dieten auzien berri emango dio Batzar Nazionalari.

25. Artikulua. Sortzaileen erreklamazio-prozedura

Sortzaile baten aldetik SORTUren organoek hartutako erabaki baten inguruko gatazkarik edo erreklamaziorik egonez gero, honako hau izango da jarraitu beharreko prozedura:

1. Erabakien inpu gnazioa Berme Batzordean aurkeztu behar da, hamar eguneko epean erabakia hartzen denetik edo dagokion sortzaileari jakinarazten zaionetik.
2. Epe horretan inpu gnaziorik aurkezten ez bada, organoek hartutako edozein erabaki irmo bihurtuko da.
3. Inpu gnazioa zuzenean formalizatuko da Berme Batzordearen aurrean, posta elektronikoa-ren bidez. Horretarako, sortzaile guztiek jakin behar dute zein den Berme Batzordearen helbide elektronikoa.
4. Inpu gnazioaren tramitazioan kontraesaneko prozesu bat egongo da, zeinean bi aldeek, hurrenez hurren, alegazioak egin ahal izango dituzten hamar eguneko epean.
5. Bi aldeek hamar eguneko epea izango dute frogak proposatzeko eta gauzatzeko. Epe hori amaitutakoan, bi aldeek beren ondorioak azaldu ahal izango dituzte, eta, azkenik, dagokion ebazpena emango da.
6. Berme Batzordeak gehienez ere bi hilabeteko epean ebatziko du, kideen gehiengo osoz, eta ebazpena nahitaez bete beharrekoa izango da.
7. Bide judizialera jotzeko, aldez aurretik barne-bidea agortu beharko da.

24

26. Artikulua. Kontu Batzordea

1. Barne-organo fiskalizatzailea da eta honako hau bermatzen du: kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena, alderdi politikoaren baliabide ekonomikoen eta ondarearen erabilera ego-kia, eta gobernu-organoen egintza ekonomikoen legezotasuna Estatutuen arabera.
2. Urtero, Kontu Batzordearen oniritziarekin, Kontseilu Nazionalak aurreko ekitaldiko txosten ekonomiko-finantzarioak eta kontu-txostenak aurkeztuko dizkio Batzar Nazionalari, onar ditzan.
3. Kongresu Nazionalak hautatutako hiru kidez osatuta egongo da, eta organo horren aurrean baino ez du erantzungo; hala ere, Batzar Nazionalari txostenak egin beharko dizkio, hala eskatzen badio.

27. Artikulua. Erreferenduma/kontsulta

SORTUk erreferendum-prozedurak artikulatu ahal izango ditu garrantzi handiko erabakiak hartzeko, Kontseilu Nazionalaren erabakiz edo gutxienez sortzaileen % 15ek edo herrietako zuzendaritzen % 20k eskatuta. Herrialde batek ezin izango du sortzaileen edo herrietako zuzendaritzen % 40 baino gehiagoko ekarpenik egin, baldin eta % 40tik gorako ehuneko hori beharrezkoa bada sortzaileen edo herrietako zuzendaritzen % 15era edo % 20ra iristeko, hurrenez hurren.

Halaber, herrialde mailako erreferendumak egin ahal izango dira, lurralde-eremu horri soilik dagozkion gaietarako, Kontseilu Nazionalaren erabakiz edo herrialdeko sortzaileen % 35ek eskatuta.

Erreferendumak gehiengo soilez onartuko dira, baldin eta parte-hartzea sortzaileen % 40tik gorakoa bada.

Laugarren kapitulua.

Ekonomia- eta ondare-araubidea

28. Artikulua. Ekonomia- eta finantza-arduraduna

SORTUko ekonomia- eta finantza-arduraduna Zuzendaritza Nazionalak izendatuko du, eta haren funtzioak honako hauek izango dira:

- a. Urteko kontuak prestatzea eta Kontuen Auzitegian aurkeztea.
- b. Herrialde mailako ekonomia- eta finantza-arduradunak egonez gero, haien kudeaketa gainbegiratzea.
- c. Ordainketak agintzearen eta gastuak baimentzearen arloan Estatutuek jasotzen dituzten funtzioak betetzea.
- d. Estatutuek edo zuzendaritza-organo gorenak esleitzen dioten beste edozein funtzio.

29

29. Artikulua. Baliabide ekonomikoak

SORTUk bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak eskuratu, administratu eta besterendu ahal izango ditu.

SORTUren baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

1. Finantzaketa pribatutik datozenak:
 - a. Sortzaileen eta jarraitzaileen kuotak eta ekarpenak (kargu publikoak, konfiantzazko karguak edo izendapen askeko karguak betetzeko hautatutako sortzaileen ekarpenak barne).
 - b. Alderdi politikoaren jarduera propioen produktuak, bere ondarearen kudeaketatik eratorritako etekinak, bere sustapen-jardueretatik eratorritako etekinak eta bere helburu espezifikoekin lotuta eman ditzakeen zerbitzuetatik lor daitezkeenak.
 - c. Dirutan edo gauzatan egindako dohaintzak, 8/2007 Legean aurreikusitako moduan eta baldintzetan jasotzen baditu.
 - d. Hitzartzen dituen mailegu edo kredituetatik eratorritako funtsak.
 - e. Jasotzen dituen herentziak edo legatuak.

2. Finantzaketa publikotik datozenak:

Alderdi politikoaren finantzaketari dagokionez indarrean dagoen Europako, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo herriko legedian xedatutakoaren arabera jasotzen dituen diru-sarrerak.

30. Artikulua. Hasierako ondarea

Eratu zenean, SORTUK ez zeukan ondarerik.

31. Artikulua.-Kontuak emateko prozedura. Administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola

Ekonomia- eta ondare-araubidearen administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola honako arau hauen arabera egingo da:

1. Urtero, Zuzendaritza Nazionalak SORTUren kontu-proposamena egingo du eta Batzar Nazionalari aurkeztuko dio, onar dezan.
2. Aurrekontuak urtebeteko indarraldia izango du, eta ekitaldi bakoitza abenduaren 31n itxiko da.
3. Alderdi politikoaren ekonomia eta finantzak kudeatzea ekonomia- eta finantza-arduradunaren zeregina izango da. Sei hilean behin, kontuak emango dizkio Zuzendaritza Nazionalari, Berme Batzordeak egindako txostenarekin batera.
4. Eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharren sorburu diren egintza eta dokumentu guztiak ikuskatzeko eginkizuna Kontu Batzordeari dagokio.
5. Urtero, Kontuen Auzitegiari bidali behar zaizkio kontuak, legeak ezarritako epearen barruan.

32. Artikulua. Dokumentu-araubidea

Alderdi politikoak, sortzaileen erregistro-liburuaz gain, akta-liburua, kontabilitate-liburua, diruzaintza-liburua, inbentario-liburua eta balantze-liburua eramango ditu. Liburu horien edukia araudi bidez xedatuko da, eta, haren bidez, uneoro jakin ahal izango da zein den finantzen eta ondarearen arloko egoera, bai eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako betebeharrak betetzen ari diren ere.

Bosgarren kapitulua.

Sortu desagitea

33. Artikulua. Desagitea

1. SORTU honako arrazoi hauengatik azkenduko da:
 - a. Desagitea.
 - b. Beste alderdi politiko batekin bat egitea.
2. Bi kasuetan, horretarako soilik deitutako Kongresu Nazional bateko kideen hiru laurdenek espresuki hartutako desagite-erabakia beharko da.
3. SORTUren desagitea edo bat egitea aztertzeko Kongresu Nazionalerako deialdia idazkari nagusiak egingo du, bere ekimenez edo Kontseilu Nazionaleko kideen hiru laurdenen erabakiz. Halaber, SORTU desagiteko edo beste alderdi politiko batekin bat egiteko Kongresu Nazionalerako deialdia egin beharko da toki-erakundeen % 60k hala eskatzen badute eta erakunde horiek gutxienez sortzaileen % 50 ordezkatzen badituzte.
4. Desagiteko erabakiak likidazio-batzorde bat eratzea ekarriko du, eta batzorde hori arduratuko da SORTUren ondarearen likidazio-prozesua kudeatzeaz. SORTU desagindakoan geratzen den ondarea, finantza-betebehar guztiak bete ondoren, Euskal Herriaren eraldaketa sozialaren eta nazio eraikuntzaren alde lan egiten duten erakundeen artean banatuko du likidazio-batzordeak, kideen gehiengoak erabakitako irizpideen arabera.
5. Beste alderdi politiko batekin bat eginez gero, alderdi hori edo bat-egitetik sortutako alderdi berria arduratuko da SORTUren ondareaz.

Estatutu hauek 2022ko urtarrilaren 22an Bizkaia Kirol Etxe eta Frontoian egindako SORTUren III. Kongresu Nazionalen onartu dira.

